

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4130

*1054/2020 EBAZPENA, irailaren 1ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Farmaziako Zerbitzuan Pertsonal Administratiboaren Taldeburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.*

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Farmazia Zerbitzuan Pertsonal Administratiboaren Taldeburu lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea, eta plaza jabetzan edukitzea C2/D2 lanbide-taldean.
- b) C2/D2 lanbide-taldeari dagokion titulazioa edukitzea.
- c) C2/D2 lanbide-taldean, gutxienez, 2 urteko lan-esperientzia edukitzea.
- d) Hizkuntza eskakizuna: 2. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data 2020-11-25.
- e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerrako betebeharrak.

##### 2.– Kontuan hartuko diren merezimenduak.

E-Osabide eta SAP farmazia kudeatzeko aplikazio informatikoa erabiltzeko prestakuntza eta ezagutza.

Esperientzia farmazia kudeatzeko SAP erabiltzaileen prestakuntzan.

Farmaziari eta ospitaleratze-solairuei buruzko administrazio-kudeaketaren arloko esperientzia.

Esperientzia izatea ISO dokumentuak edo kalitatea kudeatzeko beste edozein sistematakoak egiten.

Esperientzia eta/edo prestakuntza lantaldeen antolaketan eta kudeaketan.

Datuen babesaren arloko ezagutzak.

### 3.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetzako Donostialdeko ESiko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako «curriculum vitae»-rekin batera, Donostialdeko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dute (Begiristain z.g. 20014 Donostia, Gipuzkoa). Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

Kontuan hartzeko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatikoan behar bezala egiaztatuta dauden alderdiak; dena den, izangaiak eskabidean adierazi behar du hori horrela dela.

### 4.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiak betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

### 5.– Hautatzeko prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAan argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu, aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

### 6.– Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetzako Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen ebazpenaren bidez, eta Osakidetzako intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAan argitaratzen den egunetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

2020ko urriaren 8a, osteguna

7.– Ebazpen honen aurkako errekurtsok.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2020ko irailaren 1a.

Donostialdeko ESko zuzendari gerentea.

E (53/2019 ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Pertsonaleko zuzendaria,  
ESTHER LITAGO SOLA.